


Kérity

Ipuinen etxea

Anik Le Ray

Rébecca Dautremer



KASERO
-SO ISI-
Iburutegia



KÉrity

Ipuinen Etxea

Testua Anik Le Ray
Jatorrizko sorkuntza grafikoa
Rébecca Dautremer



IBAIZABAL



Udako oporraldia hasi bezain laster, Nataelen familiak hiritik alde egin eta Britainiarako bidea hartzen zuen, Kérityrantz.

Han, Eleonore izaten zuten zain, irakurtzen eta katua altzoan zuela.

Itsasertzeko errepidearen amaieran, pinu okerren artean, Eleonoreren etxea ikusten zen.

Inguruko etheen aldean ez zuen ezer berezirik, baina, hala ere, Eleonoreren etxeak sekretu bat gordetzen zuen barren-barrenean.

Urte hartan, aurrekoetan ez bezala, atetzarra itxita zegoen.

Etxea hutsik zegoela zirudien, eta katua bakarrik atera zitzaien harrera egitera, urrumaka eta laztan eginez.

Eleonore joana zen, *inor bueltan etortzen ez den herrialdera*.

Gurasoak aurrera eta atzera zebiltzan maletak lepoan hartuta, baina etxea hutsik zegoela ematen zuen, hala ere.



Natanael goiko pisura igo zen eta ate debekatutako sarrailatik begiratu zuen.

- Buuu! Izutu egin zara, e?

Angelika pozarren zegoen nebari emandako ezustekoarekin!

- Eta orain Eleonore hilda dagoela, nork irakurriko dizkizu ipuinak?
- Bazkalondoko loaldian, Eleonorek ipuinak irakurtzen zizkion Natanaeli.

Hiru esalditan elefanteen dantzaldira edo oihan sakonera eramaten zuen.

Liburua ixtean, mutikoak burua amonaren altzoaren gainean jartzen zuen. Eta horrelaxe geratzen ziren, geldirik, ametsak isilean gogoratzen.

- Ez berriro esan hilda dagoenik, horiek tontakeriak dira!
- Bada, egia hutsa da eta, beraz, hobe zenuke irakurtzen ikasi!
- Natanaelek gutxi gorabehera irakurtzen bazekien, baina ez zuen konfiantzarik bere buruarengan.




Igandean, gurasoak eta seme-alabak egongelan bildu ziren.

- Dagoeneko jakingo duzueenez, Eleonorek etxe hau utzi digu oinordetzan. Baina zuengan bereziki pentsatu du.

Gutun-azal bat eman zien. Une batez, Natanaelek pentsatu zuen Eleonore itzuli egin zela azken besarkada ematera. Erabat hunkitua zegoen eta ez zen gai izan hitz bakar bat ere irakurtzeko. Arrebak haserre begiratu eta eskutitza eskuetatik kendu zion.

Natanael, lanbro moduko batean, Eleonorek idatzitako hitzak entzun baino, asmatu egiten zituen: “ Egongelako apalategian dagoen panpina errusiarra Angelikarentzat da”.

“Zuri, Natanael, ate debekatua zabaltzeko giltza utziko dizut. Gela horretan dagoen guztia zurea da.” Sarritan ikusten zuen Eleonore ate haren atzean desagertzen zenean , eta beste aldean gertatzen ziren gauza liluragarriak imajinatzen zituen. Angelika ia ito egin zen: nebarentzat gela handi-handia eta beretzat, berriz, panpina soil bat. Ez zen bidezkoa!



Giltzari bira bakarra eman, eta klik!, *ate debekatua* zabaldu zen.

Natanaelek poliki gela handian sartu zen, baina han ez zuen ezer berezirik ikusi: hautsez estalitako idazmahaia, horman Eleonoreren erretratua eta, leihoaren ondoan, munduko bola bat. Amonak zer oparitu nahi ote zion galdegin zion bere buruari.

Agian, errezel atzean zegoen ezkutatua oparia!
Orduan, eskuekin oihal handiak zabaldu zituen.

Erabat txundituta, sekulako LIBURUTEGIA aurkitu zuen. Milaka liburu zeuden bata bestearen gainean estu-estu pilatuta, sabairaino.

Horixe zen, beraz! Eleonore jadanik ez zegoen bertan liburuak irakurtzeko eta, beraz, mutikoari eman zizkion liburu guztiak.

Horrela, hain gustuko zituen ipuinak irakurtzen jarraitzeko aukera zuen. Hala ere, orain, ipuin-kontalaririk gabe, liburu haiek ez zuten xarma bera.



Gau hartan, ekaitz-haize bortitza zebilen.
Sokak askatu eta etxea olatu apartsu erraldoi batek herrestan eraman zuen.

Hantxe zihoan ur gainean, olatu sakonek zakartutako itsasoan.

Gora eta behera! Gora eta behera! Gora eta behera!

Haizeak uluka egiten zuen tximinietan barrena.
Urakanaren indarrak leiho-ateak astintzen zituen. Teilak dilin-dalan egiten zuten.

Gora eta behera! Gora eta behera! Gora eta behera!

Olatu bortitzek nora ezean zebilen ontzi hura gogor jotzen zuten.

Halako batean, haizea baretu eta atertu egin zuen. Etxeak uharte bat zirudien ezerezaren erdian. Kaioen oihuek Natanael esnatu zuten.

Etxea zutik zegoen, tinko azpiko haitzari helduta, baina gaueko ekaitz bortitzak larri zaurituta utzi zuen.



Biharamunean, Natanael eta haren familia erabat atsekabetuta zeuden. Kalteen zerrenda luzea egin zuten. Premiazko konponketa-lanak egin behar ziren berehala etxe osoan, baina ez zuten dirurik horretarako. Jada entzuten zuten kartel mehatxagarria kirrinka egiten: Salgai. Badiaren beste aldean, Piktu jaunaren dendako kartelak dir-dir egiten zuen.

- Antzinako gauzen saltzailea! Etxe honetako gauza asko eros ditzake hark!


- Dagoeneko hitz egin dut harekin -marmar egin zuen aitak-.

Ongi asko dakit zer nahi duen. Liburutegia eta panpina besterik ez ditu nahi, hitz batean: zuen herentzia!

- Ez dut nahi beste inora joan oporretan! Nahiago dut liburuak saldu - Natanaelek oihuka.

- Oso eskuzabala zara, laztana - esan zion amak -. Aukeratu liburu bat!

Eleonoreren oroipenean gordeko duzu. Ahotsik gabeko liburu baten aurrean bakarrik egotea, ordea, munduko gauzarik tristeena zela iruditu zitzaion.




Baina, nola aukeratu liburu horien guztien artean gustukoena? Hainbeste izenburu zituen deszifratzeko... Ezinezkoa iruditzen zitzaion lan hori! Ikaratu egin zen. Liburuak hegan egiten hasi ziren gelan gora eta behera. Letra-zurrumbiloak liburuetatik ihes egin eta dantzari hasi ziren, gero eta azkarrago, mutikoaren inguruan. Aurpegiaren parean, kriskitin-sugearen itxurako “eseak” altxatu ziren.



Ideogramak, arabesko dantzariak, elkarren artean lotutako hitzak... Harridura-marka erraldoi bat mutikoaren bihotza zeharkatzen saiatu zen! Bi parentesi beltz bere inguruan itxi ziren... Natanael zorabiatu eta lurrera erori zen. Konortera etorri zenerako, gaua sartu zen.

Pixkanaka, belarrietara zurrumurruak iritsi zitzaizkion eta, gero, norbaiten urrats arinak entzun zituen, ozta-ozta hautematen zirenak. Ez zen ausartu arnasa hartzera...

Liburuko testua:



Ilunpetan, milaka eta milaka begi distiratsu, orratz-buruak bezain txikiak, mutikoari begira ari ziren.

- Nola lortu ote du giltza? Beharbada, Eleonoreren ordezkoa da!
- Zertara etorri zara hona, Oin-handi? – galdetu zion hamar zentimetroko pirata batek.
- Natanael dut izena, eta hauxe nire liburutegia da.
- Eleonorek ordezko bat agindu zigun. Pozten naiz – esan zion katu xelebre batek.

- Nola iritsi zarete honaino? Nondik zatozte? – galdetu zion Natanaelek harrituta, Katu Botaduna, Kako-okar kapitaina Mari Errauskin, Txanogorritxo eta baita Otso Maltzurra ere ezagutu zituenean.

- Eleonorek bildu gintuen hemen – azaldu zion Mari Errauskinek -. Bidaia bakoitzetik liburu berri bat ekartzen zigun.

- Liburutegi honetako liburuetan BIZI GARA – gaineratu zuen Gulliverrek.



Katu Botadunak hiru kolpe eman zituen makuluaz apalategian.

- Atera zaitezketel! - esan zuen katu-ahots bereziarekin.

Ezkutuan zegoen kartoi-orri eta paper zimurtuen nahaspila baten artetik ehunka, milaka pertsonaia azaldu ziren. Guztiek ordezkari berria ikusi nahi zuten.

Bat-batean, *tik-tak* hotsa entzun zen, gero eta ozenago. Kako-okor kapitaina bere liburuan ezkutatu zen hozkadaka jateko asmoz zetorren krokodiloa zela uste baitzuen.

Baina ez. Untxi Zuria zen, poltsikoko erlojuarekin zetorrena. Errugabe-plantak egin bazituen ere, haren irribarreak argi erakusten zuen bihurrikeria harekin oso ongi pasatu zuela.

Orduan, inguruan norbait ezaguna zuela sentitu zuen Natanaelek. Alice! Urduri eta belarriak gorri-gorri zituela, arrapastaka esan zion:

- Alice! E... oso gogoko zaitut. Beno, ez. Edo... bai. Tira, ikaragarri gogoko dudala zure istorioa! Alice ederrak maitekor egin zion irribarre. Natanael erabat zoriontsu zen.




Zurezko panpina bat begi-bazterretik begira ari zitzaion Natanaeli, denbora-pasa sudurra izugarri luzatzen zuela. Pinotxo zen!

Orduan, haur bat hegan gerturatu zitzaion Natanaeli. Mutiko txikia Mari Erraunskinen eskuan pausatu zen eta bere itzala konpontzeko eskatu zion, berriz askatu baitzitzaion.

- Peter Pan!

Bat-batean, besteak baino askoz handiagoa zen pertsonaia bat inguratzen saiatu zitzaion.

Burutik beherako hortzikara sentitu zuen. Ogroa zen! Ahoa ireki eta hortz zorrotz haiekin irribarre beldurgarria egin zion... Berehalaxe azaldu ziren hiru maitagarri, baita Jack eta bere babarrun magikoa ere, Merlin aztia, Arturo Erregea... Eta gero, *Mila gau eta bat gehiago* eta *Oihaneko liburua* ipuinetako pertsonaiak agertu ziren. Desfileak egunsentira arte jarraitu zuen. Natanael ez zegoen nekatuta. Liburuetako laguntxoak ezagutu zituen! Haiek guztiek lekutxo bat zuten Natanaelen ametsen sakon-sakonean.



Liburutegiaren hondotik ahots zakar bat entzun zen, marmarrean ari zena.

Hauts artetik, andre zahar bat agertu zen haserre, soineko beltz zimur batean pinpirindua, eta hurritzezko hagaxka magiko bat altxatu zuen.

- Irakurtzen jakingo du, bederen! - garrasi egin zuen Sorgin Gaiztoak ahots zakarrez. Natanaelek ordezkari ofizial bihurtzeko erritua bete behar zuen: horman idatzitako esaldi bat irakurri baino ez zuen egin behar, ozen eta argi.

Irakurri, arren! - erregutu zion Otso Maltzurak -. Bestela, eguerdia baino lehen gure ipuinak ezabatu egingo dira eta gu haiekin desagertuko gara!

Berriro ere hitzak dantzan hasi ziren, ezkutaketan jolasten, bata bestearen gainera salto egiten.

Guztiz ezinezkoa zen silaba bakar bat ere irakurtzea! Pertsonaiak kezkatzen hasiak ziren.

- Irakurtzen ez daki eta! Eleonorek analfabeto bat bidali digula uste al duzue? Sorgin gaiztoak, Angelikak bezala, edonori gogoak kentzeko gaitasuna zuen.



Une horretan, kamioneta zahar zaratatsu bat iritsi zen atarira eta antzinako gauzen saltzailearen ahots sakonak burrunba egin zuen etxeko korridoreetan:

- Ea, bada, non daude liburu zahar horiek?
- Liburu zaharrak... gure bila dator ere! - oihu egin zuten ipuinetako pertsonaiek.
- Oin-handi horrek saldu egin gaitu! Azpisuge halakoa! - esan zion Sorgin Gaiztoak.
- Ez! Nahigabe egin nuen! Liburuetan bizi zinetenik ere ez nekien...

Sorgina sutan jarri zen eta Natanael seinalatu zuen hagaxka magikoaz.

- Zirriti-zarrata, bihur dadila ñimiño! Horrela ikasiko du!

Instant batean liburutegia New Yorkeko etxe orratzak bezain handia bihurtu zen, eta Natanaelen gorputza, berriz, ipuinetako pertsonaiak bezain txikia.

- Eta, orain, nola babestuko gaitu, gu bezain txikia bada? - kexu agertu zen Alice.

Arrazoi zuela ulertu zuten gainerakoek eta haserre begiratu zioten Sorgin Gaiztoari.



Bat-batean, liburutegiko ateko kisketa mugitu egin zen eta pertsonaia guztiek ospa egin zuten. Soinekoa jasota eta, brodatuak eta begiztak airean, Sorgin Gaiztoa korrika bizian sartu zen bere liburu zaharrean, pipiak jotako hartan, eta indar handiz itxi zuen liburuko zala, hain gogor, ezen zatitxo bat askatu eta lurrera erori baitzen. Laster batean liburu guztiak itxita zeuden. Natanaelek ez zekien non sartu. Zorionez, Alicek lekutxo bat egin zion bere liburuko 34. orrialdean.

Handik gutxira, apalategiak hutsik zeuden eta liburuz betetako kartoizko kaxak, berriz, kamionetan. Liburutegian liburu bakar bat soilik geratu zen!

- Erabat hondatuta dago, ez dut liburu hori nahi - esan zuen Piktuk.

Minutu pare bat geroago, kamioneta zabu-zabuka zihoan errepidean behera, liburuz goraino beteta, dandarako bidean. Piktuk oso ongi zekien zeinen preziatua zen eskuratu berri zuen altxorra, eta ordurako bildumazale ezagunei deitu zien. Hura zortea berea!



Dendara iritsi zirenean, Natanael kaxen artean ibiltzen ausartu zen eta Ogroaren triparekin jo zuen. Eskerrak altzarian gora ihes egitea lortu zuen, bestela irentsiko baitzuen!


- Sorgin Gaiztoa etxean geratu da! Hura gabe, txiki geratuko zara betiko! – esan zion Mari Errauskinek.

Natanael kezkatu zegoen, baina lagunaren begiradetan itzaropena nabaritu zuen.

- Oin handiak iritsi baino lehen joan behar duzu – proposatu zion Kako-Oker kapitainak.

Elurra bezain zuria zen neskato batek azken pospoloa eman zion Natanaeli. Alicek ere bere laguntza eskaini eta elkarrekin joatea proposatu zion. Untxi Zuriak jauzi bat egin eta gauza bera egin zuen, poltsikotik erlojua atera bitartean:

- Ni garaiz iristeaz arduratuko naiz! Zortziak puntu-puntu diran, zortziak eta bi segundo... eta hiru segundo... lau... Mozolo halakoa! Ez dugu denborarik galdu behar! Natanael indarberritu egin zen. Lagunak salbatzeko edozer egiteko prest zegoen.



Lagun talde ñimiñoak hondartza zeharkatu behar zuen etxera itzultzeko. Dendatik atera eta harea artean gora ibiltzen hasi ziren. Dunaren tontorrera iristean, Natanaelek hondartzaren zabalerari begiratu zion. Ez zebilen inor ordu hartan, eta harea hezera iristea lortzen bazuten, askoz azkarrago ibiliko zirela pentsatu zuten.

Dunaren beste aldetik jaisten hasi baino lehen, Alicek dendan utzitako lagunei keinu bat egin zien baina ez zuen ikusi zuhaixka baten atzean ezkutatuta zegoen pertsonaia.

Kako-okerr kapitaina, largabista begian jarrita, lagunena aurrerapenen berri ematen ari zen:

- Ogro ergela haien atzetik joan da! - esan zuen. Nahiago nuke Untxi leloa eta haren ditxosozko erlojua jango balitu! Baina, ez, hori ederregia litzateke; nahiago du mutiko txikia jan.

Otso Maltzurak orro beldurgarriak egin zuen, Mari Errauskin zorabiatzeko zorian zegoen eta Gulliverri damu zitzaion Ogroa begien bistatik galdu izana talde ñimiñoa abiatu zenean.



Largabista hartuta, Kako-Oker kapitainak hondartzan jarritako lehen eguzkitakoa ikusi zuen:

- Oin-handiak hasi dira hondartzara etortzen! Benetako piratak bezala, leporaino armatuak!
- Hondartzan zegoen enbor ustel baten gainetik, Natanael eta bere lagunak etorri berriei begira geratu ziren. Hondartzari begira zeudenez eta itsasoa atzean zutenez, ez ziren ohartu olatu erraldoi bat zetorrela. Olatuak indarrez harrapatu zituen eta itsaso barrura eraman.

Untxi Zuriaren belarri luzeak hemen eta han agertzen eta desagertzen ziren. Alice hondora erori zen eta soinekoa busti-busti eginda zuelako kexu zen! Natanael gogoz saiatu zen esktutik eusten, baina ito beharrean zegoela, itsaso azalera igo zen:

- Alice, igeri egin behar duzu, ito egingo gara bestela! Ez gaude liburu batean! Norbaitek hondartzatik soka bat botatu eta aurpegian jo zuen. Natanaelek gogor heldu zion sokari. Ogroak sokatik tira egin eta hondartzara ekarri zituen biak.



Mila esker! Salbatu egin gaituzu! – esan zion Natanaelek Ogroari.

- Atsegin ditut gizakitxoak... – erantzun zion.

Natanaeli lepondoko ilea lastu zitzaion. Beldurrak hartu zuen eta, bat-batean, galdera eroak bururatu zitzaizkion: Nola? Gizakiak gustatzen zaizkiola? Gatza, piperra eta ozpinarekin? Bere burua lapiko batean ikusten zuen! Ogroa dardaraka hasi zen, goseak amorratzen. Mutikoa eskutzarren artean hartu eta aho handira eraman zuen.

- E! Lagun bat betiko da! Mokadu bat eman eta jaten baduzu, betiko galduko duzu! – oihu egin zion Alicek, ongi baitzekien hitz gozoak erabiltzen edozein astakilo lasaitzeko. Ogroak, gizajale senaren eta abenturan parte hartzeko gogoaren artean duda-mudatan, ahoa itxi eta Natanael bere besoetan estutu zuen bihotzaren ondoan, samur-samur. Untxi Zuria poltsikoan sartu zen, Alice eskuineko sorbaldara igo zuen, eta Natanael, ezkerrekora. Zango indartsuei esker, azkar-azkar abiatu ziren.



Bien bitartean, dendara lehen eroslea sartu zen.
Kermadek jaunak, bildumagile aditua zenak, berehala erabaki zuen zer nahi zuen.

- Liburu guztiak liluragarriak dira. Den-denak erosiko dizkizut!

Halako batean, grabatu batean jarriko zuen arreta.

- Begira hori! Gulliver eta Kako-okar kapitaina Txanogorritxoren ipuinean daude!

Piktuk liburua kendu zion eskuetatik eta Mari Errauskin liburua eskaini zion.

Berriz ere, Kermadek jauna harrituta geratu zen marrazkia ikusita:

- Mari Errauskin eta Otso Maltzurra elkarrekin! Eta hori normala iruditzen al zaizu?

Antzinakoen saltzaileak beste liburu bat hartu zuen. *Mila gau eta bat gehiago* liburuan, Pinotox, Peter Pan eta Katu Botaduna hegan ari ziren, Aladinoren alfonbra magikoan.

- Barkatu, baina gauzak horrela, ez ditut liburu bakar bat ere erosiko! - esan zion haserretuta Kermadek jaunak, dendatik ateratzen zen bitartean.



Une hartan, kaioak igaro ziren garrasika abenturazaleen buruen gainetik. Kaio batek mokoka egin zion Natanaeli eta lurrera bota zuen. Ogroak hegaztia uxatu zuen eta kaioa atzera itzuli zen gainerakoekin. Untxi Zuriak erlojua atera zuen poltsikotik:

- Hamarrak dira puntu-puntuan! Laurogeita hamar minutu eta seiehun eta hogeita bost-segundo... Ai, ai, ai! Larri gabilta! Azkar, azkar! Goazen korrika!

Haur Oin-handi bati atentzioa eman zion lasterketak, eta haien atzetik abiatu zen.

- Bizkor! Hareazko gaztelura! Jarraitu niri! – oihu egin zien Natanaelek.

Bezperan eraiki zuen gazteluaren tuneletako batean, karramarro bat zegoen, itsasoa noiz etorriko zain. Abenturazaleek karramarroaren lasaitasuna aztoratu zuten. Gazteluko zuloen labirintoan atzetik ibili zitzairen. Untxi Zuriak erlojua hartu zuen mailutzar gisa eta, buruen gainetik jira eta bira zebilkien, karramarroa uxatzeko. Bat-batean, gainera zetorkien metalezko horma gorri handia ikusi zuten.



Dendan, egoera erabat aldatu zen. Kako-okor kapitaina eskuak lotuta zegoen. Peter Panek largabista kendu zion eta urrutian ikusten zuena azaltzen ari zen.:

- Oin-Handi bat pala gorri bat sartzen ari da gazteluan eta gure lagunak desagertu egin dira!

Palak bidea hautsi zien eta gaztelua gainbehera erortzen hasia zen. Natanaelek, karramarroa uxatzeko, azken pospoloa erabili zuen. Ozta-osta! Olatu bat indarrez sartu zen gazteluko zuloetan eta denak herrestan eraman zituen. Gaztelua erabat suntsitua zen.

Alabaina, Oin-handi bat atzetik segika zebilkien, plastikozko kamioi bat herrestan zeramala. Ogroak astiroegi egiten zuen korrika eta, danbateko batean, kamioira erori zen. Bi jauzi egin eta lagunak Ogroaren ondora igo ziren, baina konortetik gabe zegoen ia-ia. Alicek astiro hitz egin zion. Untxi Zuriaren belarri luzeak sorbaldaren gainera erori ziren. Erlojuak zioen hamaikak eta berrogeita bost minutu eta hogeita hamabi segundo zirela...

- Arranopola! Hauts bihurtuko gara begien itxi-ireki batean!



Halako batean, itxaropen izpi bat piztu zitzaion Natanaeli Angelikaren ahotsa entzun zuenean, bazkaltzera joateko deiadarka ari zitzaiola. Baina laster arreba Hadrianoren etxera sartzen ikusi zuen. Hadriano haien auzotar eta lagun ona zen. Etxean, mahaiaren gainean, panpina pila bat zeuden, txikienetik handienera ordenatuta.

- *Matrioskak* dira - azaldu zion Hadrianok -.

Elelonorek Errusiatik ekarri zizkidan. Ikusten? Bat bestearen barruan sartzen da, eta azken honetan... hara!

Niri ere oparitu dit panpina errusiar bat. Nataneli, berriz, liburuak eman dizkio... irakurtzen ere ez daki eta! - kexu zen Angelika.

- Eleonorrek izugarri maite zintuzten zuek biok. Ez dut uste zuek haserretzea nahi zuenik - gogorarazi zion Hadrianok.
- Beno, dena dela, liburuak orain Piktuk eraman ditu.
- Nola! Iruzurgile horrek eraman dituela?



Kartoizko kaxen barruan, ipuinetako pertsonaiak kolorea galtzen hasiak ziren.

- Agur esateko unea iritsi da – esan zuen Katu Botadunak.
- Arrosa leunak edertu egiten zaizu – esan zion Otso Maltzurak Txanogorritxori.
- Mila esker, Otso. Zeinen bikote ederra egiten dugun! Ezta?
- Bai? Zuk uste? Otso Maltzur ona izan al naiz?
- Bai, primeran jardun duzu, haur guztiak beldur ziren zutaz...

Tira, lagunok! Liburuetara itzuli behar dugu! – esan zien Kako-okor kapitainak. Piktuk liburu ederrak bezero berriari erakutsi nahi izan zizkion. Aulnoy andreak begiak erdi itxi zituen, testua irakurgaitza zelako, eta irudiak ez zirelako apenas ikusten.

- Sentitzen dut, baina liburuak horrela egonda, ez dut bakar bat ere erosiko! Antzinakoen saltzailea erabat txundituta zegoen, nola demontre ezabatu ziren liburuak haiz azkar! Hura zen hira gauza bitxia!



Angelikak hondartzara jaistea erabaki zuen eta kometa besapean eraman zuen. Haria askatzeko kometa lurrean utzi bezain laster, Natanael eta haren lagunak kometaren tolestura batean sartu ziren eta, berehalaxe, airean hegan ari ziren, zirti-zarta, gora eta behera, azkenean lurraren kontra jo arte, haize-laster zakar batek botata.

Lagunek gero eta kolore gutxiago zuten. Bat-batean, Angelikaren aurpegia Natanaelen parean azaldu zen.

- Natanael! Zu al zara? Zer gertatu da? Zeinen txikia zaren! Eta horiek, nor dira horiek? Zeinen hurbil dauden! - oihu egin zuen.

Angelikak ezin zuen sinetsi ikusten ari zena. Zeinen zaila zen istorio guztia bi hitzetan azaltzea ipuinetan sinesten ez zuen neskato bati! Baina, behingoz, arrebak kasu egin zion. Lagunduko ziela esan zien.

Hiru oinkada eman eta berehalaxe iritsi ziren etxeko liburutegira.



Untxi Zuriaren erlojuko orratzak eguerdiko hamabietara gerturatzen ari ziren.

- Azkar! Irakurri esaldia, nire txikitxo! Mesedez!
- Zu gabe ez ginateke sekula honaino iritsiko!

Aliceren ahotsa ahula zen ordurako eta hitz bakoitza ahoskatzea izugarri kostatzen zitzaion.

- Eleonore ez zegoen oker zu ordezkari aukeratzean. Zugan uste osoa dugu!

Eta Natanaelek hutsik egin gabe lagunak salbatuko zituen esaldia irakurri zuen:

“Asmatua izateak ez du esan nahi existitzen ez duenik”.

- Gora! Gora! – Alice pozez zoratzen zegoen.
- Hamabiak dira! Zeinen zoriontsua naizen! Behingoz, garaiz iritsi naiz! – esan zuen Untxiak. Natanaelen lagunak kolorea hartu zuten berriro ere. Baita Sorgin Gaiztoak ere, baina ez zuen Natanael bere neurrira ekarri nahi izan lagun guztiguztiak salbatu zirela ikusi arte.



Angelikak aitari eskatu zion Pikturen dendara joatea liburuak berreskuratzeke. Pertsonaia ñimiñoek aitaren poltsikora jauzi egin zuten elkarrekin joateko. Dendara iristean, Sorgin Gaiztoak lasaitu ederra hartu zuen. Jada han ziren letra larri dotoreak, bai eta tipografia ederrak ere. Guztiak beren lekuetara itzuli ziren, liburuetako orrialdeetara eta gauza bera egin zuten marrazkiek eta haien kolore atseginek ere. Orduan Sorgin Gaiztoak bere neurria ekarri zuen Natanael.

Pozez zoratzen, Natanaelek oihu egin zuen:

- Aita! Aita! Hemen naiz! Kito! Ikasi dut irakurtzen! Liburu horiek guztiak balio handiko liburuak dira. Guzti-guztiak irakurriko ditut. Inondik inora ere ez ditugu saldu behar!
- Benetan ari al zara? Oso harro nago zutaz, seme! Arrazoi duzu, bilduma eder hori gorde behar dugu. Lasai, ez zaitez kezkatu, etxea konpontzeko irtenbideren bat aurkituko dugu.



Piktu eta bezero berria solasaldi bete-betean zeuden. Bazirudien bezeroak liburu guztiak erostea erabakita zuela.

Natanaelen aita arrapaladan gerturatu zitzairen bi gizonei, eta argi eta garbi mintzatu zitzaion antzinakoen saltzaileari:

- Sentitzen dut, baina iritzia aldatu dugu. Gure liburuak berreskuratu nahi ditugu! Balio handikoak dira guretzat!

- Berandu da dagoeneko, erosle bat etorri zait! - erantzun zion saltzaileak.
- Hala da, bai - esan zuen bezeroak -. Liburu guztiak erosiko dizkiot!

Bezeroak kapela kendu zuen, baita betaurrekoak eta gezurrezko bibotea ere. Hara! Hadriano zen! Ezin zuen onartu Natanaelek Eleonorek emandako liburuak galtzea. Auzotar leialak liburuak berriz etxera eramaten lagundu zien.



Etxera iristean, Angelikak oso pozik irribarre egin zien. Panpinaren sekretua zein zen jakin berri zuen. Panpina errusiar guztiek bezala, bereak ere trapuzko panpina txikiago bat zuen barruan, eta haren barruan...hara! Eleonoreren bitxiak zeuden! Hura zen hura aberastasuna!

Etxea konpontzeko adina zegoen, eta are gehiagorako ere.

Angelika pozarren zegoen.

Eleonorek ez zuen inondik inora ahaztu, neba bezain beste maite zuen eta uste osoa zuen beregan.

- Eleonorek etxe honen zaindari egin gaitu! -
esan zuen amak hunkituta.

Gauaren erdian, Natanael eta Angelika ohetik altxatu ziren zaratarik atera gabe...



Ilargiak liburutegia argitzen zuen. Gela isil-isilik zegoen.

Natanaelek espero zuen ipuinetako pertsonaiek Angelika bertan egotea onartuko zutela eta ezkutalekuetatik aterako zirela. Geldi-geldi egon ziren zain.

Irribarreak entzun ziren eta isiltasuna eten zuten. Ondoren, liburu-hotsa entzun zuten: irekitzen ari ziren. Bat bestearen atzetik, pertsonaia guztiak azaldu ziren.

- Kontxo, kontxo! Lehenago lagundi digun neskatoa da eta! – esan zuen Untxi Zuriak.

Eta denek txalo egin zuten. Angelika liluratuta zegoen. Sorgin Gaiztoa abesten hasi zen eta festa hasi zuten: pertsonaiak desfilatzen hasi ziren eta agurtu egiten zituzten anai-arrebak. Alicek bere liburua ireki zuen eta Natanaelek arrebari irekurri zion:

- Baina...zeinen ongi irakurtzen duzun! – onartu zuen Angelikak.
- Ilargiaren azken izpi batek Eleonoreren erretratua argitu zuen katua altzoan zuela. Amona irribarrez zegoen, eta ez duzue sinetsiko, baina...katua ere irribarrez zegoen!

KÉrity

Ipuinen Etxea

Asmatua izateak
ez du esan nahi existitzen ez denik.

Natanaelek Eleonoreren liburutegia jaso du herentzian,
baina haurrak ezin du imajinatu ere egin
liburu horiek guztiek sekretuetan sekretuena gordetzen dutenik.
Bat-batean, Alice, Pinotxo, Kako-okar kapitaina
eta bere ipuin gustukoenetako heroi guztiak
hezur-haragizkoak bihurtuko dira bere begien aurrean.
Mehatxupean bizi dira, eta Natanaelek soilik salba ditzake.
Orduantxe hasiko da harentzat adiskide berriak
askatzeko erloju kontrako lehia.

Asmatua izateak
ez du esan nahi existitzen ez denik.

Natanaelek Eleonoreren liburutegia jaso du
herentzian, baina haurrak ezin du imajinatu ere
egin liburu horiek guztiek sekretuetan
sektetuena gordetzen dutenik.
Bat-batean, Alice, Pinotxo, Kako-okar kapitaina
eta bere ipuin gustukoenetako heroi guztiak
Hezur-haragizkoak bihurtuko dira bere begien
aurrean.
Mehatxupean bizi dira, eta Natanaelek soilik
salba ditzake.
Orduantxe hasiko da harentzat adiskide berriak
askatzeko erloju kontrako lehia.

